

DIRU SARRERAK

Diru sarrerei dagokienez, aktiboen salmentan oinarrituko den produktua da. Kalkulu orrian egin dugun analisisan oinarrituta, txip bakoitzeko fabrikazioa edo kostua 800 eurokoa den heinean, 1000 euroko salmenta prezioa izango du. Hitz gutxitan, txip bakoitzeko berrehun euroko eta aldi berean %20ko irabazia suposatuko luke. Gainera, geure produktuaren prezioa finkoa izango da. Inbertsio nahiko handia suposatuko duen proiektu denez gero, hasierako inbertsio horretara bideratutako diru-sarrerak eskuratzeko bideak izatea ezinbestekoa da. Sare sozialetan jasan dezakeen inpaktuaz gain, osasun zentroetan gure produktuaren informazioa eskuragarri jarriko dugu, beste itemetan aipatutako beste hainbat salmenta tekniketaz gain (hitzaldiak, kartelak, baliabide gutxiko jendearentzako laguntza boluntarioa...). Adin guztietako jendean eragiteko ditugun baliabide eta teknika guzti hauek, gure diru sarreraren iturri izango direlakoan gaude. Hori gutxi balitz, gure produktuaren inpaktua gora doan heinean, publizitate anitza gehitzeko ideia dugu, beharbada, adineko erresidentzietan oinarrituta. Azkenik, orain berri aipatu den guztuari ordainketa bakarreko diru sarrerak izango ditugula gehitu behar zaio.

Salmentek positiboki eragiten badute gure produktuaren prezio aldatzeko prest egongo ginateke; izan ere, kontsumitzaileen baitan, gure produktuak duen prezioa ordaintzeko prest dauden ala ez baloratzeko aukera izango genuke. Horren baitan, prezioa moldatuko genuke.